

Ekainak 17: Trafiko mozketak garabia muntatu eta desmuntatzeko

Ostiralean (ekainaren 17an) Ugarte Eraikuntzak parrokian daukan garabia desmuntatuko du eta aldi berean, Santa Ana aurrean muntatuko du, bertako teilatua konpontzeko. Muntatze eta desmuntatze lan hauen ondorioz, bihar, trafikoa, hainbat leku eta ordu tartetan moztuko da:

- 08:00tarako Unibertsitate Etorbidea moztuta geldituko da Aita Madinatik Kale zaharrera bitartean. Ondorioz, Postetxetik Txaketuarantz doana bidea, Aita Madina kalearen parean moztuta topatuko du; eta Bakardade Amatik behera Txaketuarantz doanak berriz, Txaketua parean topatuko du bidea moztuta.

Zamalanetarako Kale Zaharreko piboteak zabalik dauden bitartean autoak Kale zaharretik barrena joan ahal izango dute (Bakardadeko Amatik jaisten direnak), behin piboteak itxita (12.00), trafikoa Portu kalerantz desbideratuko da.

- Kiroldegi aurreko aparkaleku guztia libre edukiko dugu, desmuntatzen dituzten garabi zatiak bertara eramateko. Behin garabi zati guztiak bertan eduki (14:00etatik aurrera) Unibertsitate Etorbidea libre geldituko da, trafikorako ireki egingo da, eta San Juan kalea moztuko da Santa Anan garabia muntatzeko. Moztuko den errepide zatia, anbulatorio ondoko errotondatik kiroldegi ondoko errotonda bitartekoa izango da.

2016 ekainak 15